aballarri
EGAPE IKASTOLAKO BULETINA
EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## DESDE EGAPE

*La Ikastola Egape lleva más de 50 años construyendo el futuro de Urnieta y de sus gentes, trabajando día a día, recogiendo el testigo de nuestros antecesores y, al mismo tiempo, renovándonos sin descanso. Que el euskara sea un eslabón común, que nuestra cultura permanezca viva, que sepamos educar en igualdad, que esa igualdad atienda también la diversidad del diferente...Esos son nuestros tesoros más preciados.*

*Durante este año hemos tenido una nueva Dirección, un grupo directivo nuevo, pero cuyos integrantes llevamos muchos años en Egape, educando a nuestro alumnado, fomentando la convivencia con las familias y participando en las actividades y en la vida del pueblo.*

*Defendemos valores como la cercanía y la transparencia. En esa línea, queremos hacer un esfuerzo especial por estar incluso más cerca de vosotr@s y con ese objetivo hemos puesto en marcha varias iniciativas. Una de ellas es precisamente la publicación trimestral de este boletín con el fin de dar a conocer nuestro proyecto, nuestros objetivos, actividades y reflexiones. Todo ello sin olvidar, por supuesto, el contacto directo con la gente y sin dejar de insistir que tenéis las puertas de Egape abiertas para plantear vuestras dudas, preguntas o aportaciones.*

*A lo largo de estos años, la realidad nos ha demostrado que miles de jóvenes, que han estudiado en Egape, han podido salir al mundo preparados para afrontar nuevos retos del futuro. Esto nos motiva a seguir trabajando con ilusión.*

*Equipo de dirección.*

## EGAPEREN ERRAILETAN

Herritarron etorkizuna orainaren eta iraganaren errailetatik datorrenez, mende erdi baino gehiago daramagu gure ikastolan Urnietaren eta urnietarron etorkizunaren eraikuntzaren parte garrantzitsua izaten, egunez egun ekinez, aurretik izan ditugunen lekukoa jasoz, baina etenik gabe berrituz. Euskara denon katebegi izan dadin, euskal kultura bizigai, berdintasunean eta ezberdinaren aniztasunean heziz: horiek baitira gure altxorrik preziatuenak.

Zuzendaritza berria daukagu aurten, baina talde berria osatzen dugunok urte asko daramatzagu irakasten, ikastolaren erraileetan , gure umeak hezten, gurasoekin bizikidetza sustatzen, herriko ekintzetan parte hartzen eta herriari bizia ematen.

Gertukoak gara eta gardentasunez dihardugu. Hala ere, ahalegin berezia egin nahi dugu zuengandik gerturago egon gaitezen, eta hori dela-eta hainbat ekimen jarri ditugu martxan; besteak beste, gisa honetako aleak argitaratuko ditugu hiru hilean behin, gure proiektu, asmo, ekintza eta eztabaiden berri emateko asmoz. Ez ahaztu, dena den, zuzeneko harremana dela onena, eta Egapeko ateak zabalik dituzuela zalantza, galdera, edota ekarpenak egiteko.

Egapen ikasi duten milaka ikasle etorkizuneko erronkei eusteko prest atera dira mundura, eta mundu aberats horrek hauspotuta jarraituko dugu lanean.

Zuzendaritza.



Miriam Larrinaga, Koro Berasategi, Edurne Arzelus, Nekane Legarreta, Juan Luis Alkorta eta Amaia Amutxastegi.

# EGAPE IKASTOLAKO IKASLEAK, HERRIAN ERAGILE

## "KOMERTZIO TXIKIAK BIHOTZ HANDIAK" KANPAINAREN BITARTEZ HERRITARRAK BERTAN EROSTERA ANIMATUZ

EGAPE IKASTOLAko 4.DBHko ikasleek Euskara eta Literatura arloan egiten den proiektua, aurten ikasketa zerbitzuaren bidez herrira zabaldu dute. Proiektuan "Urnietarrak Eguberrietako erosketak tokiko saltokietan egitera animatzeko kanpaina antolatu dute. Horretarako Udaletxera, familietara… eskaera gutunak, gonbitak, eskerrak emateko gutunak bidali dituzte, erakundeekin harremanetan jartzeko irizpideei jarraikiz".

Proiektu honen xede nagusietako bat ikasketa zerbitzua garatzea izan da, hau da, herriari zerbitzua eskainiz ikaskuntza-prozesuari zentzua ematea, ikasleari jakintzak errealitatera transferitzeko aukera emanez.

Herriko saltokiak bizirik mantentzearen garrantziaz jabeturik, taldeka, hainbat ekimen antolatu dituzte ikasleek eta Jolas eta Ekin, On Bizi eta Udalarekin elkarlanean aritu dira.

Honela, azaroaren 23an, ostiral arratsaldez, hainbat ekintzetan parte hartzera (graffitiak, ginkana, herri kirolak) gonbidatu zituzten LHko ikasle eta familiak sentsibilizazio kanpaina antolatuz. Horrez gain, abenduaren 11ean promozio bideoa zabaldu zuten eta abenduaren 21ean, Egapeko Neguko azokan, proiektuaren aurkezpena egin zuten eta herriko saltokietako produktuez osatutako saskia zozketatu.

Gainera, ikasleek herriko saltokietan ateratako argazkiekin Udalak urteko egutegia argitaratu du urnietarren artean zabaltzeko.

Eskertzekoa da Udalak proiektuarekiko izan duen begirunea eta On Bizi elkarteak eta dendariek izandako partaidetza eta jarrera.





*El alumnado de 4º de ESO de EGAPE IKASTOLA ha desarrollado un proyecto del Currículum en el área de Euskara eta Literatura organizando una campaña para animar a los habitantes de Urnieta a consumir en los comercios del pueblo. A través del aprendizaje-servicio, el alumnado, identifica en su entorno próximo una situación con cuya mejora se compromete, desarrollando un proyecto solidario que pone en juego conocimientos, habilidades, actitudes y valores.*

*El 23 de noviembre organizaron actividades de sensibilización para el alumnado y las familias de Primaria (graffiti, ginkana, herri kirolak...). Además, el 11 de diciembre se dió a conocer el vídeo promocional creado por el alumnado y el 21 de diciembre en la feria, "Neguko Azoka", que se organiza en la Ikastola se presentó el proyecto y se sorteó una cesta con productos del comercio de Urnieta. Además, el Ayuntamiento ha publicado un calendario con las fotos que nuestro alumnado hizo en los comercios del pueblo.*

*Es de agradecer, la colaboración tanto del Ayuntamiento como de la Asociación On Bizi y de los comerciantes*



# ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

ABAILARRI GURASO ELKARTEAK KUDEATUTA / GESTIONADAS POR LA ASOCIACIÓN DE MADRES Y PADRES ABALLARRI

JARDUERA ESKAINTZA ANITZA ADITUEN GIDARITZAPEAN

AMPLIA OFERTA DE ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES DIRIGIDAS POR CONTRASTADOS PROFESIONALES

| | | |
|---|---|---|
| **Antzerkia / Teatro** | Joxemari Berasategi | LH 1etik aurrera / A partir de 1º de Primaria |
| **Bertso eskola** | Jon Iturbe | LH 4. mailatik aurrera / A partir de 4º de Primaria |
| **Dantza / Danza** | Edu Murumendiaraz + Itziar Uzkudun | HH 4 urtetik aurrera / A partir de 4 años |
| **Marrazketa artistikoa / Dibujo artístico** | Arantxa Iturbe | 1etik aurrera / A partir de 1º de Primaria |
| **Gitarra / Guitarra** | Xabi San Sebastián | LH 3tik aurrera / A partir de 3º de Primaria |
| **Judo / Judo** | Jone Irastorza | HH 4 urtetik aurrera/ A partir de 4 años |
| **Xake / Ajedrez** | Unai Atxaga | LH 1etik aurrera / A partir de 1º de Primaria |
| **Pilota / Pelota** | Jon Juanes | HH 4 urtetik aurrera / A partir de 4 años |
| **Ingelesez jolas eta solas / Juegos en inglés** | Cristina Iglesias | HH 4 urtetik aurrera / A partir de 4 años |
| **Txalaparta / Txalaparta** | ----------------------- | DBHn / ESO |
| **Idazketa digitala / Mecanografía** | Barne formazioa lan taldea / Barne formación | DBHn / ESO |

Eta guzti honetaz gain urnietar heldu guztientzat Edu Murumendiarazekin Egape Dantza Elkarteak antolatuta “Euskal dantza garaikidea”. // *Abierto a tod@s los urnietarr@s adultos curso de danza vasca contemporánea dirigido por Edu Muruamendiaraz y organizado por Egape Dantza Elkartea*





## HAURRAK GOXO-GOXO

Egape ikastolako Aballarri Gurasoen Elkarteak, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu ikasturtean zehar. GOIZEKO ZAINTZA: Goizeko 7:30etik 9:00etara. Bi toki desberdinetan, Lizardi kaleko ikastolako ludotekan 3 urtetik gorakoentzat eta Etxeberri plazako geletan bi urtekoentzat.

**ARRATSALDEKO ZAINTZA:** 14:30etik 16:30era ekaineko eta iraileko arratsaldeetan.

**LUDOTEKA:** Aste Santuko oporretan, ekaineko oporretan eta iraileko lehenengo astean eskaintzen den zerbitzua da.

*La asociación de Aballarri Guraso Elkartea de la ikastola Egape organiza a lo largo del curso diferentes servicios para cubrir las necesidades de las familias.*

***GOIZEKO ZAINTZA*** *(servicio matinal): de 7:30 a 9:00. En la ludoteca de la ikastola de la calle Lizardi para mayores de 3 años y en las aulas de la plaza Etxeberri para l@s niñ@s de dos años.*

***ARRATSALDEKO ZAINTZA*** *(por las tardes): de 14:30 a 16:30 las tardes de junio y septiembre.*

***LUDOTEKA:*** *En vacaciones de Semana Santa, la última semana de junio y la primera de septiembre.*

# MATRIKULA ZABALIK!

## Matrícula abierta

EGAPE IKASTOLA

**Egape, Urnietarron ikastola publikoa**

**28 URTARRILA ENERO > 8 OTSAILA FEBRERO**

**ATE IREKIAK ETA BILERA INFORMATIBOA**

**PUERTAS ABIERTAS Y REUNIÓN INFORMATIVA**

2 URTE / 2 AÑOS
Urtarrilak 23 de enero
Etxeberri Plaza,17:00 h.

DBH / ESO
Urtarrilak 21 de enero
Azkorte,17:00 h.



Eskola Jasangarria Ziurtagiria

KALITATEA HEZKUNTZAN

EGAPE IKASTOLA


Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.org

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.org

Azkorte z/g, Urnieta.
943 00 91 41
egapebhi@egapebhi.org